**LANKIDETZARAKO ESPARRU-AKORDIOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) ERAKUNDE PUBLIKOAREN ARTEKOA, HEDABIDE PUBLIKOEN ALORREAN 2013-2016KO BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANAREN EKINTZA-ARDATZAK ADOSTEA, DISEINATZEA ETA GARATZEA XEDE DUENA.**

Vitoria-Gasteizen, 2014ko urriaren 31an

PARTE HARTZEN DUTE

Juan Antonio Fernández jaunak, Lehendakaritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusiak, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN izenean eta haren ordezkari.

María Teresa Iturbe Mendialdua andreak, EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB, aurrerantzean) erakunde publikoko zuzendari nagusia den aldetik, haren izenean eta haren ordezkari.

ADIERAZTEN DUTE

2013ko azaroaren 26an, 2013-2016ko Bake eta Bizikidetza Plana - Gizartea elkartzea helburu onartu zuen Eusko Jaurlaritzak.

Plan horretako 18. ekintza-programak honako ekimen eta helburu hauek ditu:

- Indarkeriaren aurka kontzientzia sozial kritikoa eta giza eskubideekin ez ezik bizikidetza demokratikoaren balioekin ere konprometituta dagoena indartzea.

**ACUERDO MARCO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI Y EL ENTE PÚBLICO EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) PARA COMPARTIR, DISEÑAR, Y DESARROLLAR LOS EJES DE ACTUACIÓN DEL PLAN DE PAZ Y CONVIVENCIA 2013-2016, EN EL ÁMBITO DE LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN PÚBLICOS.**

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de octubre de 2014

INTERVIENEN

D. Juan Antonio Fernández Erdocia, Secretario General para la Paz y la Convivencia, en nombre y representación de la ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.

Dña. María Teresa Iturbe Mendialdua, en calidad de Directora General del Ente Público EUSKAL IRRATI TELEBISTA (en adelante EITB), en nombre y representación del mismo.

EXPONEN

Que el 26 de noviembre de 2013 el Gobierno Vasco aprobó el Plan de Paz y Convivencia 2013-2016- un objetivo de encuentro social.

Que, por su importancia, el Programa de actuación nº 18 de este Plan centra sus iniciativas y objetivos en:

- Reforzar una conciencia social crítica frente a la violencia y comprometida con los derechos humanos y los valores de una convivencia democrática.

- Gizartearen eta hezkuntzaren alorreko zeharkako konpromisoa sustatzea, gizartea elkartzeko prozesua ahalbidetzeko.

- Hedabideekin eta bereziki EITB erakunde publikoarekin sinergia-dinamika bat sustatzea, proiekzio praktikoa eta gizartean erabilera izango duten lankidetza-eremuak ezartzeko.

2012ko ekainaren 21ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta EITBren arteko Programa Kontratua hitzartu zen. Programa Kontratu horren 3.2. atalean –gizalegezko balioak eta bakearen kultura sustatzeari buruzkoan– xedatutakoaren arabera, beste batzuen artean helburu du EITBk: "Euskal gizartea egituratzen laguntzea, elkarbizitza demokratikoko eta aniztasuna errespetatzeko gizarte-balioak sustatuz, bakearen aldeko kultura eta memoria modu eraginkorrean bultzatzeko eta terrorismoak euskal gizartean izan duen eraginaren kontakizun objektibo eta egiazko bat eraikitzen laguntzeko".

Horretarako, Programa Kontratuaren 5.9. atalean honako hau jaso da EITBren konpromisoetatik gizalegezko balioak eta bakearen aldeko kultura sustatzearekin lotura duten horien artean: "EITBk erakunde arteko akordioa sinatuko du Eusko Jaurlaritzarekin, adosten den irismenarekin, honako gai hauen gainean: giza eskubideak, biktimen arreta, oroimenaren kontaketa eraikitzea eta bakearen kultura".

- Impulsar un compromiso socioeducativo transversal orientado a hacer posible un proceso de encuentro social.

- Promover una dinámica de sinergia con los medios de comunicación y especialmente con el ente público EiTB para establecer ámbitos de cooperación con proyección práctica y de utilidad social.

Que, el 21 de junio de 2012, se suscribió un Contrato-programa entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y EiTB. En dicho Contrato-programa, en su apartado 3.2, relativo al fomento de los valores cívicos y la cultura de la paz, se establece como objetivo de EiTB: “Contribuir a la vertebración de la sociedad vasca fomentando valores sociales de convivencia democrática y respeto a la pluralidad, para contribuir eficazmente a la cultura de la paz y a la memoria, así como a la construcción de un relato objetivo y real de lo que ha supuesto el terrorismo en la sociedad vasca.”

A tal efecto, entre los compromisos de EiTB relacionados con el fomento de los valores cívicos y la cultura de la paz, figura en el apartado 5.9 del Contrato- programa: “Realizar un acuerdo institucional de EITB con el GV, con el alcance que se acuerde, en materia de derechos humanos, atención a las víctimas, construcción del relato de la memoria y la cultura de la paz y a la memoria.”

Aurreko bi legegintzaldietan aldian-aldian onartutako bizikidetza-planei lotutako bi lankidetza-hitzarmen egin dituzte Eusko Jaurlaritzak eta EITBk. Batean zein bestean, ETAren terrorismoa, indarkeriaren beste edozer mota, eta eskubideen urraketa gaitzestea eta deslegitimatzea funtsezko ardatz izan dira, bai eta demokraziaren, aniztasunaren eta bakearen aldeko balioekiko konpromisoa ere. Egun, ETA behin betikoz amaitu den eta bizikidetza sozial nahiz politikoaren egoera normalizatu bide den honetan, balio horiei jarraitutasuna ematen die esparru-akordio honek.

Que el Gobierno Vasco y EITB han compartido en las dos legislaturas anteriores sendos convenios de colaboración vinculados a los planes de convivencia aprobados en cada periodo. En ambos casos, se han basado en el rechazo y deslegitimación del terrorismo de ETA y de cualquier otra forma de violencia, o vulneración de los derechos y en el compromiso con los valores de la democracia, el pluralismo y la paz. Este Acuerdo Marco da continuidad a esos mismos valores, en un contexto de definitivo final de ETA y de aspiración de una normalización de la convivencia social y política.

EITB taldearen profesionaltasun eta independentzia printzipioa errespetatuz eta EITB sortzeko legean ezarritakoa betez ezartzen da eta ezarri izan dira lankidetza-akordioak, aurreko legegintzaldietan zein legegintzaldi honetan.

Que tanto en las anteriores legislatura, como en ésta, los acuerdos de colaboración se han establecido y se establecen sobre la base del respeto al principio de profesionalidad e independencia del Grupo EITB y preservando cuanto se establece en la ley de Creación de EITB.

Esparru-akordio honen bitartez, azken batean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta EITBren arteko lankidetza ezartzen da; beti ere, azaldutako ekimenak eta xedeak betetze aldera, eta alde bakoitzak horretarako erabiliko dituen baliabideak egoki koordinatzeko oinarriak finkatuz.

En definitiva, por medio de este Acuerdo Marco se implementa la colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y EITB, en orden a la consecución de las iniciativas y objetivos descritos, fijando las bases de una adecuada coordinación de los recursos que cada una de las partes destinará a tal fin.

Adierazitakoa oinarri hartuta, alderdiek esparru-akordio hau sinatzea adostu dute, honako klausula hauek adostuta:

Por lo expuesto, las partes acuerdan suscribir el presente Acuerdo Marco con arreglo a las siguientes:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Xedea.

Esparru-akordio honen xedea da, hain zuzen ere, 2013-2016ko Bake eta Bizikidetza Planeko 18. ekintza-planean eta Kontratu Programan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzak eta EITBk 2014-2016 aldian zer ekimen garatuko duten zehaztea.

BIGARRENA.- Ekimenak.

Xedea betetzeko, honako ekimen hauek gauzatuko dira:

a) EITBren konpromisoak

1. konpromisoa

Euskal gizartearen akordio sozial eta politikorik garrantzitsuenek bultzatutako xede etikoekin eta demokratikoekin konpromisoa hartua duen ildo editoriala garatzen jarraituko du EITBk. Xede horiek guztiak hiru ardatz handi hauetan labur daitezke:

- Indarkeriarik eza: Indarkeriarik ezarekin konpromisoa hartutako kontzientzia kolektiboaren alde egiten du EITBk; terrorismoaren bidegabekeriaren eta pairatutako indarkeriaren aurrean.
- Giza eskubideak: Giza eskubideak defendatzearen alde egiten du EITBk, bai eta giza eskubideen urraketen biktimekiko elkartasunaren alde ere.

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto.

El objeto del presente Acuerdo Marco es concretar las iniciativas que el Gobierno Vasco y EITB desarrollarán en el período 2014-2016 en el marco del Contrato-programa y del Programa de Actuación nº 18 del Plan de Paz y Convivencia 2013-2016.

SEGUNDA.- Iniciativas.

Para la consecución del objeto se adoptarán las siguientes iniciativas:

a) Por parte de EITB

Compromiso 1

EITB continuará desarrollando una línea editorial comprometida con las aspiraciones éticas y democráticas que concitan los más importantes consensos sociales y políticos de la sociedad vasca, y que pueden resumirse en tres grandes ejes:

- No violencia: EITB contribuye a una conciencia colectiva comprometida con la no violencia frente a la injusticia del terrorismo y la violencia padecida.
- Derechos humanos: EITB contribuye a la defensa de los derechos humanos y a la solidaridad con las víctimas de sus vulneraciones.

- Bizikidetza: Bizikidetza integratzailea sustatzearen eta gizarte-topaketako prozesua ahalbidetzearen alde egiten du EITBk.

2. Konpromisoa

Zerbitzu publikoko programak egingo ditu EITBk, betiere, zintzotasunez, zorroztasunez eta objektibotasunez informatzeko eta dokumentatzeko konpromisoa hartuta, gardentasunez jokatuz eta hainbat ikuspuntu emanez. Oinarri horren gainean jarraituko du hauen guztien jarraipena egiten eta hauek guztiak zabaltzen: giza eskubideekin, biktimentzako laguntzarekin, bakearen aldeko kulturarekin, memoriarekin eta horien guztien testigantzekin lotura duten gertakariak, berriak eta gertaerak; bai eta hezkuntzaren, parte-hartzearen eta bizikidetzaren alorreko proiektuak eta gizarte-ekimenak zabaltzen ere. Horretarako, komunikazio-formaturik egokienak erabiliko ditu EITBk kasuan-kasuan (berriak, erreportajeak, elkarrizketak, eztabaidarako guneak, eta abar), baita taldearen hedabide-euskarri guztietan erabili ere: telebistan, irratian eta interneten.

3. Konpromisoa

Iraganari buruzko memoria kritikoaren sail dokumentala egingo du EITBk legegintzaldi honetan. Terrorismoa, indarkeria eta giza eskubideen urraketa jorratuko dituen sail hori hamarkadaka antolatuta egongo da; 1960an hasi eta egundaino. Saileko edukiari dagokionez, gertakarien eta testuinguru

- Convivencia: EITB contribuye a promover una convivencia integradora y a hacer posible un proceso de encuentro social.

Compromiso 2

EITB desarrollará programas de servicio público con el compromiso de informar y documentar con honestidad, rigor y objetividad, aportando transparencia y distintos puntos de vista. Sobre esta base, seguirá ofreciendo seguimiento y difusión destacados de acontecimientos, noticias y hechos relacionados con los derechos humanos, la atención a las víctimas, la cultura de la paz, la memoria y sus testimonios, así como de proyectos e iniciativas sociales en el marco de la educación, la participación y la convivencia. EITB utilizará para ello los formatos de comunicación que mejor se adecúen en cada caso (noticias, reportajes, entrevistas, espacios de debate, etc.), además de todos los soportes de difusión con los que cuenta el Grupo: televisión, radio e internet.

Compromiso 3

EITB desarrollará dentro de la presente legislatura una serie documental sobre una memoria crítica del pasado en relación con el terrorismo, la violencia y las vulneraciones de derechos humanos, ordenada por décadas, desde 1960 hasta el presente. El contenido de la serie deberá cuidar especialmente el

historikoaren berri emateko historiografia modu berezian zaindu beharko da. Historiografia horrek teknikoki oso ondo garatua behar du, eta zintzotasunez, zorroztasunez, objektibotasunez eta aniztasunarekiko errespetuz emana. Alde horretatik, argitaratze-aholkulari talde fidagarri eta anitza izango du proiektuak.

4. Konpromisoa

Memoriaren egunaren eta giza eskubideen nazioarteko egunaren artean, hots, azaroaren 10etik abenduaren 10era, saio bereziak eskainiko ditu EITBk euskarri guztietan. Bi egun horien arteko epeak garrantzi berezia izango du aipatutako gai horiek garatzeko.

5. Konpromisoa

Bake- eta bizikidetza-prozesuetan komunikazio taldeen egitekoa aztertzeko jardunaldi tekniko eta akademikoa egingo du EITBk legegintzaldi honetan; Euskal Autonomia Erkidegoko komunikazio-talde den aldetik horren ardura baitu. Jardunaldi horretan, goi-mailako profesionalek hartuko dute parte.

b) Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren konpromisoak

1. Konpromisoa

Esparru-hitzarmen honetan jasotako edozer ekimenetan eta bi aldeek egoki baderitzote,

acercamiento a los hechos y al contexto histórico desde una historiografía técnicamente muy bien desarrollada y tratada con honestidad, rigor, objetividad, y respeto al pluralismo. El proyecto contará en este sentido con un asesoramiento editorial colegiado, solvente y plural.

Compromiso 4

EITB establecerá emisiones específicas en sus distintos soportes entre el 10 de noviembre, Día de la Memoria y el 10 de diciembre, jornada internacional de los Derechos Humanos. El período comprendido entre ambas fechas tendrá una consideración especial para el desarrollo de estas temáticas.

Compromiso 5

Desde su papel y responsabilidad como Grupo de Comunicación público del País Vasco, dentro del período de la presente legislatura desarrollará una jornada técnico-académica con la participación de profesionales de alto nivel, orientada a analizar el papel de los Grupos de Comunicación en los procesos de paz y convivencia.

b) Por parte de la Secretaria General para la Paz y la Convivencia

Compromiso 1

La Secretaría General para la Paz y la Convivencia ofrecerá a EITB contribuciones

lankidetzan, sustapen-ekintzetan eta antolakuntza-jardueratan ekarpenak egin edo kontaktuak zein harremanak kudeatzeko laguntza eskainiko dio Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak EITBri.

2. Konpromisoa

EITBren hirugarren konpromisoari lotuta, iraganeko memoria kritikoari buruzko dokumentalak zabalduko ditu Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, unibertsitateetan, eta liburutegien sarean. Horretaz gainera, ikus-entzunezko materiala estatuko ikastetxeetan, unibertsitateetan eta liburutegian banatze aldera, beste administrazio autonomiko batzuekin akordioak egin ditzake Eusko Jaurlaritzak.

3. Konpromisoa

EITBren laugarren konpromisoari lotuta, Memoriaren Egunaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren artean, hots, azaroaren 10etik eta abenduaren 10era izango diren publizitate-kanpaina instituzionalen diseinua eta finantzazioa hitzar ditzake Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak.

4. Konpromisoa

EITBren bosgarren konpromisoari lotuta, bakegintza- eta bizikidetza-prozesuetan komunikazio-taldeek duten egitekoari buruzko

específicas de colaboración, co-impulso, co-organización o gestión de contactos y relaciones en cualquiera de las iniciativas incluidas en este Acuerdo Marco y en que ambas partes lo consideren oportuno.

Compromiso 2

En relación con el compromiso tercero de EITB, la Secretaría General para la Paz y la Convivencia realizará una amplia distribución de los documentales sobre memoria crítica del pasado en los centros de educación, universidades y red de bibliotecas del País Vasco. Asimismo, el Gobierno Vasco podrá realizar acuerdos con otras Administraciones autonómicas y centrales para favorecer la distribución del material audiovisual en centros educativos, universidades y bibliotecas del Estado.

Compromiso 3

En relación con el compromiso cuarto de EITB, la Secretaría General para la Paz y la Convivencia podrá acordar el diseño y financiación de campañas publicitarias de carácter institucional en el periodo comprendido entre el 10 de noviembre, Día de la Memoria y el 10 de diciembre, jornada internacional de los Derechos Humanos.

Compromiso 4

En relación con el compromiso quinto de EITB, la Secretaría General para la Paz y la Convivencia del Gobierno Vasco colaborará en

jardunaldi tekniko eta akademikorako finantzazioa eta sustapena bilatzen lagunduko du Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak.

5. Konpromisoa

Akordio honetan aurreikusitako edozer ekimen garatzeko orduan, hedabideetan bakegintzaren eta bizikidetzaren alde lan egiteko asmoz Europar Batasunak eta nazioarteko beste erakunde batzuek sustatutako programa espezifikoetan behin-behinean parte hartzen saiatuko da Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia.

HIRUGARRENA.- Jarraipen Batzordea.

1.- Jarraipen Batzordeak zortzi kide izango ditu:

- Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak izendatutako lau pertsona.

- EITBk izendatutako lau pertsona.

2.- Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak izendatutako pertsona izango da batzordeko buru. Idazkari-lanak, aldiz, batzordeko kide batek egingo ditu, batzordeak berak hautatutako hark.

3.- Batzorde horri dagokio:

- Esparru-akordio honen baitan gauzatuko diren proiektuak onartzea.

- Proiektu bakoitzaren garapenaren jarraipena egitea.

la búsqueda de financiación y promoción de una jornada técnico-académica sobre el papel de los Grupos de Comunicación en los procesos de paz y convivencia.

Compromiso 5

En el desarrollo de cualquiera de las iniciativas previstas en este Acuerdo, la Secretaría General para la Paz y la Convivencia buscará su eventual inserción en programas específicos impulsados por la Unión Europea y otras instituciones internacionales en favor del trabajo por la paz y la convivencia desde los medios de comunicación.

TERCERA.- Comisión de Seguimiento.

1.- La Comisión de Seguimiento estará integrada por ocho personas:

- Cuatro personas designadas por la Secretaria General Para la Paz y la Convivencia

- Cuatro personas designadas por EITB.

2.- Actuará como Presidente de la Comisión la persona designada por la Secretaria General para la Paz y Convivencia. Las funciones de Secretaría las llevará a cabo la persona elegida por la propia Comisión de entre sus miembros.

3.- Corresponde a esta Comisión:

- Aprobar los proyectos a llevar a cabo en el marco de este Acuerdo Marco.

- Realizar el seguimiento del desarrollo de cada proyecto.

- Esparru-akordio honen jarraipena egitea, hura interpretatzea, eta hura aplikatzean suerta daitezkeen zalantzak argitzea.

4.- Urtean, gutxienez, bi jarraipen-bilera egingo dira. Bi bilera horietako baten xedea izango da urteko txostena eta ebaluazioa egitea.

5.- Kide anitzeko organoei buruzko arauei lotuko zaie batzordearen araubide juridikoa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluaren II. kapituluan bildutakoaren arabera.

LAUGARRENA.- Esparru-akordioaren jarraipena

Konpromisoen jarraipenari buruzko urteko txotena egingo du Jarraipen Batzordeak; eta hura Eusko Jaurlaritzari entregatuko zaio urtero, martxoko lehen hamabostaldian.

BOSGARRENA.- Jakinarazpen instituzionala.

EITBri dagokio esparru-akordio honen betearazpenaren zein betetze-mailaren berri ematea eta urteko txostenak aurkeztea EITBren kontrolerako batzordeari eta EITBren administrazio-kontseiluari.

SEIGARRENA.- Iraupena.

Sinatzen den egunetik 2016ko abenduaren 31ra arte izango da indarrean esparru-akordio hau. Bi aldeak ados badaude, haren iraupena

- Realizar el seguimiento del presente Acuerdo Marco así como su interpretación y la resolución de las dudas que puedan surgir de su aplicación.

4.- Se realizarán al menos dos reuniones anuales de seguimiento. El objeto de una de estas reuniones será confeccionar y evaluar la Memoria anual.

5.- El régimen jurídico de la Comisión se ajustará a las normas sobre Órganos Colegiados contenidos en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

CUARTA.- Seguimiento del Acuerdo Marco.

La Comisión de Seguimiento realizará una Memoria anual de seguimiento de compromisos para su entrega al Gobierno Vasco dentro de la primera quincena de marzo de cada año.

QUINTA.- Comunicación Institucional.

Corresponderá a EITB informar de la ejecución y cumplimiento del presente Acuerdo Marco y de las Memorias Anuales, tanto a la Comisión Parlamentaria de Control de EITB como al Consejo de Administración de EITB.

SEXTA.- Duración.

El presente Acuerdo Marco estará vigente desde su firma hasta el 31 de diciembre de 2016 y podrá ser prorrogado por mutuo acuerdo de las partes, formalizado por escrito.

luza daiteke; idatziz formalizatuz gero. Kasu horretan, luzapenerako jarduera-programa onartuko du Jarraipen Batzordeak. Akordio honi erantsiko zaio jarduera-programa hori egoki diren baimenak eman ondoren, beti ere.

En este supuesto la Comisión de Seguimiento aprobará el Programa de actuación para el periodo de prórroga, anexándose a este Acuerdo, previas las autorizaciones que sean precisas.

ZAZPIGARRENA.- Amaitzea.

1.- Esparru-akordio hau bukatutzat jo daiteke aurreko klausulan ezarritako epea igaro delako, bai eta alderdi guztiek idatziz hala adostu dutelako ere.

2.- Edozein alderdik amaitutzat eman dezake esparru-akordioa, alde bakarretik. Horretarako, akordioa amaituko dela jakinarazi behar zaio beste aldeari, idatziz, amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago.

Eta adostasunaren lekuko, esparru-akordio hau bikoiztuta izenpetu dute aldeek, orri guztietan, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

SÉPTIMA.- Resolución.

1.- El presente Acuerdo Marco podrá terminarse por el transcurso del plazo establecido en la cláusula anterior o por acuerdo de las partes manifestado por escrito.

2.- Asimismo, cualquiera de las partes podrá dar por finalizado el Acuerdo Marco de forma unilateral, mediando preaviso por escrito, que será comunicado a la otra parte, con una antelación de al menos tres meses.

Y en prueba de conformidad, las partes firman por duplicado el presente Acuerdo Marco, en todas sus hojas, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO OROKORRATIK
POR LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA
COMUNIDAD AUTONOMA DE EUSKADI

Jonan Fernández Erdozia
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusia
Secretario General para la Paz y la Convivencia

EUSKAL IRRATI TELEBISTATIK
POR EUSKAL IRRATI TELEBISTA

María Teresa Iturbe Mendialdua
Erakunde Publikoko Zuzendari Nagusia
Directora General del Ente Público